

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Zerga premiazko araugintzako dekretua, ekainaren 8koa. Kooperatiben zerga araubidean eta sozietateen gaineko zergan eragina duten zerga neurriak onestea

Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak ezartzen duenez, Euskadiko kooperatiben araudian kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ezarritako ekarpenaren zenbatekoak han aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzen badira, fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galduko da, eta bidegabe aplikaturiko zenbatekoa hura aplikatzen den ekitaldiko diru sarreratzat hartuko da.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen bidez, araubide hori salbuesten da, baldin eta kooperatibak arautzen dituen araudiak, salbuespenez eta aldi baterako, ekarpen hori, osorik edo zati batean, helburu jakin batzuetara bideratzeko aukera ezartzen badu.

Bestalde, luzatu egin da sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epea, baldin eta haren sortzapena 2020ko abenduaren 31n izan bada.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenetatik datozen eta helburu jakin batzuetarako zuzentzen diren zenbatekoen salbuespeneko zerga araubidea

Bat. Xedapen hau fiskalki babestuta dauden kooperatibei aplikatuko zaie, baldin eta kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren zati osoa edo zati bat xede hauetakoren baterako zuzentzen badute, dagokion araudiak horretarako aukera ematen duelako:

a) Kooperatibari likidezia emateko finantza baliabide gisa, funtzionatzeko behar izanez gero; kasu horretan, horrela aplikatutako zenbatekoa itzuli egingo da, hain zuzen, urtero erabilera librerako lortzen dituen emaitzen gutxienez ehuneko 30, kooperatiben hezkuntzarako eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena aurretik zuen zenbatekora iritsi arte, eta gehienez ere 10 urteko epean.

b) COVID-19aren osasun krisia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jarduera, ekintza propioen bidez edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuei dohaintzak eginez.

Bi. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena Bat apartatuan aipatutako helburuetarako erabiltzen bada, erabilera horren zenbatekoa ez da ekitaldiko diru sarreratzat hartuko, ekarpena aplikatzen den ekitaldian, eta ez da fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galduko; beraz, ondorio horietarako soilik, ez da aplikatuko Kooperatiben

Araubide Fiskalari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 12.3 artikuluan eta 17.4 artikuluan xedatutakoa.

2. artikulua. Sortzapena 2020ko abenduaren 31n izan duten sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea

Bat. Sortzapena 2020ko abenduaren 31n izan duten sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak 2021eko uztailaren 1etik 2021eko uztailaren 30era bitartean aurkeztuko dira.

Bi. Aurreko apartatua xedatutakoa establezimendu iraunkorrei eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan ari diren errenten egozketaren araubideko erakundeei dagokien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari ere aplikatuko zaio.

Hiru. Dagokion autolikidazioan zehaztutako zorra, hala badagokio, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak zehaztutako tokian eta moduan ordainduko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta, hala badagokio, haren artikuluetan xedatutakoaren arabera izango ditu ondorioak.

Aurrekoa gorabehera, 1. artikulua aplikatuko zaie kooperatibek hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako egiten duten ekarpenetik 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean 1. artikuluan jasotako salbuespenezko helburuetara zuzentzen dituzten zenbatekoei.

Bigarrena. Gaikuntza

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusiei jakinaraztea

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA